| **Diziplina baitako oinarrizko konpetentziak** | Konpetentzia soziala eta zibikoa | -Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela ulertzea, eta pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea askotariko ezaugarriak eta xedeak dituzten taldeetan, maila bat baino gehiagotan (familian, eskolan, auzoan, herrian, nazioan eta gainerako mailetan).<br>-Bizi duen inguruneaz jabetzen den herritarra izatea eta egoera hori onartzea, konpromisoa izanda eta elkartasuna adierazita; aintzat hartzea garaiko gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala, eta, bereziki, egungo euskal gizartekoa, eta naturarekin, bere buruarekin eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko era berrien bila aritzea, gizartea hobetu eta jasangarri bihurtzeko.<br>-Giza eskubideak izatea norberaren bizitzako eta gizarteko ekintzei eta egoerei buruzko iritziak osatzeko erreferente unibertsala eta norberak herritar gisa dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko erreferentea; eta parte-hartzeko, begiruneko, justizia sozialeko eta |

| | | |
|---|---|---|
| | | elkartasuneko jokabideak lantzea, balioetan oinarritutako demokrazia gauzatzeko<br>-Bizi duten mundua ulertzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrera eskuratzea; hau da, munduaren alderdi fisikoak, sozialak eta kulturalak, iraganean izandako bizipen kolektiboak eta gaur egungo bizipenak, eta bizitza sozialari dagokion espazio fisikoa ulertzeko behar direnak, munduan eragile aktibo izateko. |

### 3.4. Ebaluazioa

Proposamen hau ebaluatzeko zenbait ebaluazio irizpide eta ebaluazio tresna erabiliko dira. Hona hemen aipatutakoak:

- Ebaluazio irizpideak:
  - Ikasleak hezkidetza zer den eta zer defendatzen duen daki.
  - Ikasleak hezkidetzaren inguruan zituen aurreiritziak apurtu ditu, aurrerapen egokia izanik.
  - Ikaslea hezkidetzaren garrantziaz jabetu da.
  - Ikasleak parte-hartze aktiboa eta interesa du.
  - Ikasleak talde lana modu egoki batean burutu du.

- Ebaluazio tresnak:
  - Ikasleak hezkidetza zer den eta zer defendatzen duen dakiela egiaztatzeko, laugarren saioan burututako galdetegia erabiliko da.
  - Ikasleak hezkidetzaren inguruan zituen aurreiritziak apurtu dituela eta aurrerapen egokia izan duela baieztatzeko, lehenengo saioan eta laugarren saioan egindako galdetegiak alderatuko dira, errubrika baten laguntza izanik *(ikusi lehenengo eranskina, 29. orrialdean)*.
  - Ikasleak hezkidetzaren garrantziaz jabetu dela baieztatzeko, laugarren saioan burututako galdetegia eta behaketa fitxa erabiliko dira *(ikusi bigarren eranskina, 30. orrialdean).*

- Ikasleak parte-hartze aktiboa eta interesa izan duela egiaztatzeko, behaketa fitxa bat erabiliko da *(ikusi bigarren eranskina, 30. orrialdean).*
- Ikasleak talde lana modu egoki batean burutu duela baieztatzeko, behaketa fitxa bat erabiliko da *(ikusi bigarren eranskina, 30. orrialdean).*

### 3.5. Metodologia

Proiektu berritzaile honen bidez landuko diren metodologiak hiru dira, metodologia parte-hartzailea, ikaskuntza kontzientea eta transbertsalitatea, hain zuzen ere. Metodologia parte-hartzaileari dagokionez, esan beharra dago, ikasleek une oro jorratzen egongo diren metodologia dela. Izan ere, webgunean haientzat prestatuta dauden jarduerak burutzeko zein irakasleak ikasgelan proposatuko dituen ariketak aurrera eramateko, ikasleen parte-hartze aktiboa ezinbestekoa da. Azken finean, edozein ariketa burutzerakoan haiek dira protagonistak, horregatik, esan bezala, haien parte-hartzea ezinbestekoa bilakatzen da. Ikasleek proiektuaren protagonistak sentitzeari esker, haien motibazioa eta interesa areagotzea lortuko da.

Bestetik, ikaskuntza kontzienteari begira, metodologia hau lantzen da ariketa gehienak ikasleek hausnartzea eragiten dutelako. Modu honetan, ikasten ari dutenaren kontzientzia hartzen ari dira momentu oro. Honi esker, ikasleen ulermena gaiarekiko hobeagoa izatea lortuko da.

Azkenik, transbertsalitateari erreparatuz, ezin da ukatu proiektu honen bitartez aipatutako metodologia jorratzen dela, izan ere, material didaktiko honen bidez gizarteak inposatutako ideiak apurtu nahi dira, pertsona hezkidetzaileak sortuz. Hortaz, transbertsalitatea unean-unean lantzen den metodologia da.

### 3.6. Testuingurua

Webgune honetan agertzen diren ariketak aurrera eramateko, aurretik aipatutako metodologietaz gain, ikasleek era autonomo zein kooperatibo batean lan egin beharko dute. Izan ere, webgunean agertzen diren ariketa gehienak era autonomo batean aurrera eramateko dira, baina hauetariko asko amaitzerakoan irakasleak talde handiko hausnarketa sustatuko du, ikaskuntza kooperatiboa aurrera eramanez. Honetaz gain,

ikaskuntza kooperatiboa baita ere talde txikitan landuko da, webgunean agertzen den ariketa bat burutzeko eta familien atalean dauden jarduerak aurrera eramateko.

Aipatu beharra dago, hoberena talde heterogeneoak sortzea izango litzatekela, bai generoari zein maila akademikoari dagokionez. Hala ere, gau egun dugun egoera kontuan hartuz, hau da, COVID-19a kontuan hartuta, ikasleek betiko talde burbuilak mantenduko dituzte, beti ere haien artean inposatuta dagoen segurtasun distantzia mantenduz.

Gainera, proposamen berritzaile hau ikasleentzat ahalik eta aberasgarriena izateko, zenbait jarduera osagarri aurrera eraman behar dira, material osagarrien barnean aurki daitekeen "saioen antolaketa" atalean azaltzen direnak *(ikusi 20. orrialdea)*.

## 4. Webgunearen laugarren atala: Familiak



Aurretik aipatu bezala, familien atalera joateko, goiko aldeko barran dagoen “Familiak” botoia edota beheko ikasleen kutxan dagoen “Gehiago irakurri” botoia klikatu behar dira.




Familien atalean sartzerakoan, hau izango da ikusiko dena. Honetan, ikasleei zein haien familiei zuzenduta dauden jarduerak ordenean agertuko dira.





Lehenengo jarduerari dagokionez, “Etxerako lanak” deitzen da eta honen bidez, ikasleek taula batean haien familiako kide bakoitzak egiten dituen etxerako lanak apuntatu beharko dute. Ondoren, pentsatu beharko dute ea familiako kide guztiak etxean lan egiten duten modu orekatu batean. Horrela ez izatekotan, beste taula bat betetzea proposatzen zaie, kide bakoitzak asteko egun bakoitzean zein etxeko lan burutuko duen apuntatzeko. Modu honetan, haien familia etxeko lanen arloan hezkidetzailea bilakatuko da. Taulak dokumentuak klikatuz lortuko dituzte.



Bigarren jarduerari begira, “Aisialdia” deitzen da eta honen bidez, ikasleek, lehenik eta behin, bideo bat ikusiko dute non denbora librea pasatzeko ariketa desberdinak agertuko diren. Bideoa guztiz hezkidetzailea da, hau da, neskak zein mutilak futbolean jokatzen agertuko dira edota dantzatzen. Beraz, edozein pertsona nahi duen jarduera egin dezakela kontuan hartuz, familiako kide bakoitzak familia osoarekin egin nahi duen jarduera bat pentsatu beharko du. Ondoren, kide guztiek konpromiso fitxan jarduera hori burutzeko konpromisoa hartu behar dute.

Bideoa ikusteko, ikasleek bideoan klikatu behar dute. Konpromiso fitxa egiteko, aldiz, ikasleek dokumentuaren gainean klik egin behar dute.

5. **Webgunearen bosgarren atala: Kontaktua**



Aurretik aipatu bezala, kontaktuaren atalera joateko, goiko aldeko barran dagoen “Kontaktua” botoia edota beheko ikasleen kutxan dagoen “Gehiago irakurri” botoia klikatu behar dira.




Kontaktuaren atalean sartzerakoan, hau izango da ikusiko dena. Honetan, webgunearen sortzailearekin kontaktuan jarri zaitezke, iradokizunak edota zalantzak jartzeko aukera izanik.




-“Izena” jartzen duen laukian mezua idazten duen pertsonaren izena jarriko da.

-“Email-a” jartzen duen laukian mezua idazten duen pertsonaren email-a jarriko da.

-“Gaia” jartzen duen laukian mezuaren laburpena jarriko da.

-“Mezua” jartzen duen laukian, iradokizunak edo zalantzak idatziko dira.

-“Bidali” klikatu mezua bidaltzeko.

## 6. Material osagarriak

### SAIOEN ANTOLAKETA

| 1. SAIOA | ZER DA HEZKIDETZA? |
|---|---|
| **Iraupena** | 1h astero |
| **Saioaren deskribapena** | Lehenengo saioari begira, irakasleak hezkidetzarekin erlazionatuta dagoen objektu bat eramango du ikasgelara, esate baterako, berdin ikurra paper batean *(ikusi saioen antolaketaren lehenengo eranskina, 26. orrialdean).* Hortaz, irakasleak eraman duen objektua aterako du eta ikasleei galderak egiten hasiko da. Honako hauek izan daitezke galderak: "Zer da objektu hau?", "Zer esan nahi du?", "Berdin ikurra da, orduan, zeri buruz hitz egingo dugula pentsatzen duzue?", "Zergatik more kolorekoa da?", "Berdintasunarekin lotuta hezkidetza dago, badakizue zer den hezkidetza?". Modu honetan, ikasleak gaian sartzen joango dira.<br>Saioarekin jarraitzeko, ikasleek "Hezkidetza, gure altxorra!" deituriko webgunean sartuko dira *(ikusi saioen antolaketaren bigarren eranskina, 27. orrialdean)* eta ikasleen atalean dagoen hezkidetzaren inguruko galdetegi bat burutuko dute banaka *(ikusi saioen antolaketaren hirugarren eranskina, 27. orrialdean).* Modu honetan, hezkidetzari buruz dituzten aurreiritziak zeintzuk diren jakingo da.<br>Saioarekin amaitzeko, ikasleek galdetegia modu egoki batean egin duten ala ez jakiteko banaka webgunean agertzen den autoebaluazio errubrika bat burutuko dute *(ikusi saioen antolaketaren laugarren eranskina, 27. orrialdean).* |
| **Metodologia** | Ikasleek metodologia parte-hartzailea landuko dute, izan ere, hasiera batean talde handian lan egingo dute, haien iritziak emanez eta eztabaidatuz. Ondoren, hezkidetzaren inguruko galdetegi bat burutuko dute era autonomo batean eta haien |

| | |
|---|---|
| | burua ebaluatzeko aukera izango dute, non haien parte hartzea ezinbestekoa bilakatuko da. |
| **Baliabideak** | Baliabide materialak: hezkidetzarekin erlazionatuta dagoen objektua eta ordenagailua (galdetegia eta autoebaluazio errubrika).<br>Baliabide pertsonalak: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako irakasleak.<br>Baliabide funtzionalak: ikasgela. |

| **2. SAIOA** | **EGOERA EZ HEZKIDETZAILEAK** |
|---|---|
| **Iraupena** | 1h astero |
| **Saioaren deskribapena** | Bigarren saioari dagokionez, nahiz eta ikasle gehienak hezkidetza zer den ez jakin edota argi ez izan, egoera ez hezkidetzaileak identifikatzen ikasten hasiko dira. Modu honetan, zeharka ikasleek hezkidetza zer den eta hezkidetzak defendatzen dituen ideiak zeintzuk diren barneratzen joango dira. Horretarako, Susanna Isern eta Gómez-ren Daniela Pirata ipuina ezagutuko dute Edpuzzle aplikazioan sortutako bideo interaktibo baten bitartez *(ikusi saioen antolaketaren bosgarren eranskina, 27. orrialdean).* Bideo hau webgunean agertuko da, ikasleen atalean. Aipatu beharra dago, ipuina entzun eta irakurtzeaz gain, ikasleek banaka galdera batzuk erantzun beharko dituztela, ipuina garatzen den bitartean agertuko direnak.<br>Ondoren, ipuina lortu dutela eta egoera ez hezkidetzaileak identifikatzen ikasten hasi direla jakiteko ikasleek banaka webgunean agertzen den autoebaluazio errubrika bat egingo dute *(ikusi saioen antolaketaren seigarren eranskina, 27. orrialdean).*<br>Saioarekin amaitzeko, irakasleak talde handiko hausnarketa bat bermatuko du. Egia da ipuineko bideoan agertzen diren galderekin ikasleek ipuinaren inguruan hausnartzen joango direla. Hala ere, talde handian ikas kideen ikuspuntu eta ideia |

| | |
|---|---|
| | desberdinak entzuteari esker, ikasleek burutuko duten hausnarketa sakonagoa izango da, beraien ideiak eta ikuspegia birplanteatzeko aukera izanik. |
| **Metodologia** | Ikasleek, alde batetik, metodologia parte-hartzailea landuko dute, izan ere, Daniela Pirata ipuinaren bideo interaktibo bat ikusi beharko dute eta galdera batzuei erantzun. Gainera, haien burua ebaluatzeko aukera izango dute. Beraz, parte hartze aktiboa izatea ezinbestekoa izango da. Honetaz gain, saioarekin amaitzeko irakasleak gidatutako talde handiko hausnarketa burutuko dute, haien parte-hartzea sustatuko duena.<br>Bestetik, transbertsalitatea landuko dute Daniela Pirata ipuinean agertzen diren egoera ez hezkidetzaileak aztertuz.<br>Azkenik, ikaskuntza kontzientea aurrera eramango dute, izan ere, ipuinean agertzen diren galderei esker, ikasleek pixkanaka-pixkanaka ipuinean ematen den egoera ez hezkidetzaileaz kontzientzia hartzen joango dira. |
| **Baliabideak** | Baliabide materialak: ordenagailua (Daniela Pirata ipuinaren bideoa eta autoebaluazio errubrika).<br>Baliabide pertsonalak: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako irakasleak.<br>Baliabide funtzionalak: ikasgela. |

| **3. SAIOA** | **HEZKIDETZA** |
|---|---|
| **Iraupena** | 2h astero |
| **Saioaren deskribapena** | Hirugarren saioari erreparatuz, lan honen helburua sakontzeko ikasleek "Mezu ezkutuaren bila!" izeneko Escape Room digital bat burutuko dute banaka. Aipatutako Escape Room-a webguneko ikasleen atalaren barnean aurki daiteke *(ikusi saioen antolaketaren zazpigarren eranskina, 27. orrialdean).* Honetan, ikasleek Daniela Piratak haientzat prestatu duen mezua aurkitu beharko dute, baina horretarako laguntza izango dute. Izan ere, Daniela Piratatren lagun bat joango da haien bila, loroa. |

| | |
|---|---|
| | Esan beharra dago, ikasleek Escape Room-a egiten hasi baino lehen ondo egongo litzatekela irakasleak sarrera bat egitea. Sarrera honetan, ariketa honen bidez hezkidetza zer den hobeto ulertuko dutela eta jada ezagutzen duten lagun batekin topo egingo direla azaldu daiteke.<br>Escape Room-a burutu ondoren, ikasleek Escape Room-aren helburua, hau da, hezkidetza zer den eta zer defendatzen duen ulertu dutela jakiteko, banaka webgunean agertzen den autoebaluazio errubrika bat egingo dute *(ikusi saioen antolaketaren zortzigarren eranskina, 27. orrialdean).*<br>Autoebaluazio errubrika egin eta gero, ikasleak 4-5 pertsonetako taldeetan sailkatuko dira. Irakasleak talde bakoitzari Daniela Pirataren mezua emango die paper batean *(ikusi saioen antolaketaren bederatzigarren eranskina, 28. orrialdean),* taldean berriro irakurtzeko. Taldeetan mezuaren inguruan eztabaidatu beharko dute eta mezuak zer esan nahi duen ondorioztatu. Hausnartu ondoren, talde bakoitzak mezuaren esanahia zein den azaldu beharko du, talde handian eztabaida bat sortuz eta ikasleek haien iritzia ematea sustatuz. |
| **Metodologia** | Ikasleek, alde batetik, transbertsalitatea landuko dute Daniela Piratak haientzako prestatu duen mezuaren inguruan hausnartuz.<br>Bestetik, metodologia parte-hartzailea landuko dute, izan ere, Escape Room-a burutzeko, taldeetan mezuaren inguruan hausnartzeko eta gainerako taldeek ateratako ondorioen inguruan haien iritzia emateko, ikasleen parte-hartze aktiboa ezinbestekoa da. |
| **Baliabideak** | Baliabide materialak: ordenagailua (Escape Room-a eta autoebaluazio errubrika) eta Daniela Pirataren mezua.<br>Baliabide pertsonalak: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako irakasleak.<br>Baliabide funtzionalak: ikasgela. |

| 4. SAIOA | GOMENDIO HEZKIDETZAILEAK |
|---|---|
| **Iraupena** | 2h astero |
| **Saioaren deskribapena** | Laugarren saioari begira, lehenik eta behin, irakasleak ikasleei galdetuko die ea gustatuko litzaieke jendea hezkidetzaren alde egotea eta bizitzan hezkidetzak sustatzen dituen balioak izatea. Ildo beretik, Daniela Piratak bere mezuan pertsona guztiak desberdinak garela eta gainontzekoen desberdintasunak errespetatu eta normaltzat hartu behar ditugula esaten zuela azalduko du irakasleak.<br>Hori kontuan hartuz, ikasleei saio honetako ariketa proposatuko zaie, webgunean aurki daitekeena. Jarduera burutzeko, ikasleek 4-5 pertsonetako taldeetan sailkatuko dira, Canva aplikazioaren bidez poster bat sortzeko *(ikusi saioen antolaketaren hamargarren eranskina, 28. orrialdean)*. Poster honetan, ikasleek pertsonen ezberdintasunak normaltzat hartzeko gomendio hezkidetzaileak proposatu beharko dituzte. Esan beharra dago, posterra burutzeko ikasleek ikastetxeko maila erabiliz Canva aplikazioan erregistratu beharko direla.<br>Posterra burutu ondoren, talde bakoitzak gainontzeko taldeen aurrean haien posterra aurkeztu beharko dute, haien gomendioak azalduz. Horretarako, irakasleak posterra ikasgelako arbela digitalean proiektatuko du. Arbela digitala ez izatekotan, posterrak inprimatu daitezke.<br>Amaitzeko, ikasleek banaka webgunean agertzen den autoebaluazio errubrika bat burutuko dute, gomendio hezkidetzaileak proposatzen ikasi duten ala ez baieztatzeko *(ikusi saioen antolaketaren hamaikagarren eranskina, 28. orrialdean).* |
| **Metodologia** | Ikasleek, alde batetik, transbertsalitatea landuko dute pertsonen ezberdintasunak normaltzat hartzeko gomendioak sortzen eta hauek poster batean adierazten. |

| | |
|---|---|
| | Bestetik, metodologia parte-hartzailea landuko dute, izan ere, taldeetan posterra aurrera eramateko ikasle guztien parte-hartze aktiboa ezinbestekoa izango da.<br>Azkenik, ikasleek ikaskuntza-kontzientea burutuko dute, posterra egin baino lehen gizarteak pentsamendu edota ikuspegi hezkidetzailea izan behar duela ondorioztatuko dutelako eta horren ondorioz, gomendio hezkidetzaileak proposatzen dituen posterrak egingo dituztelako. |
| **Baliabideak** | Baliabide materialak: ordenagailua (posterra Canva aplikazioan eta autoebaluazio errubrika).<br>Baliabide pertsonalak: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako irakasleak.<br>Baliabide funtzionalak: ikasgela. |

| **5. SAIOA** | **AMAIERAKO HAUSNARKETA** |
|---|---|
| **Iraupena** | 1h astero |
| **Saioaren deskribapena** | Proiektu berritzaile honekin amaitzeko, talde handian orain arte landutakoari buruz hausnartu egingo da. Modu honetan, ikasle guztiek saioei eta landutako gaiari buruzko iritzia emateko aukera izango dute.<br>Ondoren, ikasleek banaka lehenengo saioan burututako galdetegi berdina egin beharko dute *(ikusi saioen antolaketaren hamabigarren eranskina, 28. orrialdean)*, hasiera batean zituzten aurreiritziak eta ideiak aldatu diren ala ez ikusteko. Galdetegi hau webgunean aurki daiteke.<br>Amaitzeko, aipatutako galdetegia modu egoki batean burutu dutela egiaztatzeko, ikasleek banaka webgunean agertzen den autoebaluazio errubrika egingo dute *(ikusi saioen antolaketaren hamahirugarren eranskina, 29. orrialdean).* |
| **Metodologia** | Ikasleek, alde batetik, metodologia parte-hartzailea burutuko dute, izan ere, talde handian egingo den hausnarketan eta banakako galdetegian haien parte-hartze aktiboa ezinbestekoa bilakatuko da. |

| | |
|---|---|
| | Bestetik, ikaskuntza kontzientea burutuko dute, hausnarketa eta galdetegia egiterakoan ikasleek hezkidetzaren inguruko gaiaz kontziente izango direlako.<br>Azkenik, transbertsalitatea jorratuko dute, ikasleek hausnarketa eta galdetegia egiterakoan hezkidetzaren printzipioak eta ideiak gogoan izango dituztelako. |
| **Baliabideak** | Baliabide materialak: ordenagailua (galdetegia eta autoebaluazio errubrika).<br>Baliabide pertsonalak: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako irakasleak.<br>Baliabide funtzionalak: ikasgela. |

**SAIOEN ANTOLAKETAREN ERANSKINAK**

- **Lehenengo eranskina**

Hezkidetzarekin erlazionatuta dagoen objektua:



- **Bigarren eranskina**

Webguneko link-a: https://leirecastresana.wix.com/my-site-1

- **Hirugarren eranskina**

Hezkidetzaren inguruko galdetegiaren link-a: https://cutt.ly/0nQhq1l

- **Laugarren eranskina**

Galdetegiaren autoebaluazio errubrikaren link-a: https://cutt.ly/MnQhtEN

- **Bosgarren eranskina**

Daniela Pirata ipuinaren bideoaren link-a: https://cutt.ly/2nQhi7Y

- **Seigarren eranskina**

Daniela Pirata ipuinaren autoebaluazioa errubrikaren link-a: https://cutt.ly/UnQha9W

- **Zazpigarren eranskina**

Escape Room-aren link-a: https://view.genial.ly/607bf92a3e36040d6b77555d

- **Zortzigarren eranskina**

Escape Room-aren autoebaluazio errubrikaren link-a: https://cutt.ly/DnQhvW4

- **Bederatzigarren eranskina**

Daniela Pirat_aren mezua:

Gure bizitzan pertsona oso desberdinekin topatu egingo gara. Hauetako batzuk neskak izango dira, beste batzuk mutilak eta beste batzuk, aldiz, ez dira ez neska ezta mutil sentituko. Gerta daiteke baita, nesken organo sexualak dituzten mutilak eta mutilen organo sexualak dituzten neskak ezagutzea. Dibertsitate honi esker, gure mundua eta gure gizartea guztiz berezia da. Badaude baita panpinekin jolastea gustuko duten mutilak eta kotxeekin jolastea gustuko duten neskak. Badaude haien etxeetan lan egiten duten gizonak eta baita enpresen nagusiak diren emakumeak. Nahi duguna izateko eskubidea eta gaitasuna daukagu.

Pertsona guztiak gara desberdinak eta aniztasun hori errespetatu egin behar dugu. Gainera, errespetuarekin batera enpatia izan behar dugu. Beste pertsonak ulertzen saiatu behar gara, harreman osasuntsuak eraikiz. Guztiok errespetu berdina merezi dugu, berdin du gure sexua, gure generoa, gure gustuak edota gure pentsatzeko modua zein den.

Ez da berdinak izateko eskubidea izatea, desberdinak izateko eskubide berdina izatea baizik.

- **Hamargarren eranskina**

Canva aplikazioaren link-a: https://www.canva.com/es_es/

- **Hamaikagarren eranskina**

Posterraren autoebaluazio errubrikaren link-a: https://cutt.ly/anQhEEb

- **Hamabigarren eranskina**

Galdetegiaren link-a: https://cutt.ly/dnQhYGO

- **Hamahirugarren eranskina**

Galdetegiaren autoebaluazio errubrikaren link-a: https://cutt.ly/snQhOwJ

## 7. Eranskinak

### - Lehenengo eranskina

| ERRUBRIKA | BIKAIN (10-9) | OSO ONDO (8-7) | ONDO (7-6) | NAHIKO (5) | GUTXI (4-1) |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lehenengo galdetegian emandako erantzun ez hezkidetzaileak, hezkidetzaileak bilakatu dira** | Bigarren galdetegiko erantzun guztiak hezkidetzaileak dira | Bigarren galdetegiko erantzun gehienak hezkidetzaileak dira | Bigarren galdetegiko erantzun batzuk hezkidetzaileak dira, beste batzuk ez | Bigarren galdetegiko erantzun asko ez dira hezkidetzaileak | Bigarren galdetegiko erantzun gehienak ez dira hezkidetzaileak |
| **Bigarren galdetegiko hezkidetzaren definizioa askoz ere egokiagoa da** | Bigarren galdetegiko definizioa primerakoa da | Bigarren galdetegiko definizioa oso ondo dago | Bigarren galdetegiko definizioa ondo dago | Bigarren galdetegiko definizioa kili-kolo dago | Bigarren galdetegiko definizioa ez dago ondo |
| **Ikasleak lehenengo galdetegian zituen aurreiritziak apurtu ditu** | Aurreiritzi guztiak apurtu ditu | Aurreiritzi gehienak apurtu ditu | Aurreiritzi asko apurtu ditu | Aurreiritzi batzuk apurtu ditu | Ez ditu ia aurreiritzirik apurtu |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Bigarren galdetegian ikusten da hezkidetzak defendatzen dituen ideak ulertu dituela** | Ideiak primeran ulertu ditu | Ideiak oso ondo ulertu ditu | Ideiak ondo ulertu ditu | Ideiak kili-kolo ulertu ditu | Ideiak ez ditu ulertu |

- **Bigarren eranskina**

| **BEHAKETA-FITXA** | |
|---|---|
| **Ikasgela / Taldea:**<br><br>**Ikaslearen izen-abizenak:** | |
| **Kurtsoa:** | **Data:** |
| **Non:**<br>- **Gelan:**<br>- **Beste batzuk:** | |
| **Jarduera:** | **Irakaslea:** |
| **Behatutako arloa:** | |
| **Ondorioak:** | |
| **Behatzailearen iritzia:** | |
| **Sinadura:** | |

## 8. Erreferentzia bibliografikoak

Eusko Jaurlaritza. (2015). Oinarrizko hezkuntzako curriculuma (236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

## 5. Bosgarren eranskina: Escape Room digitalaren ikasle gida

# “MEZU EZKUTUAREN BILA!”

## ESCAPE ROOM DIGITALAREN IKASLE GIDA

Leire Castresana Fuentes

# AURKIBIDEA

1. Sarrera……………………………………………………………………………………3

2. Escape Room digitalaren misterioa………………………………….…….4

3. Tresnak………………………………………………………………………………….5

4. Animazioak………………………………………………………………………….6

5. Mezua……………………………………………………………………………………6

## 1. Sarrera

“Hezkidetza, gure altxorra!” deituriko webgunearen ikasleen atalean agertzen den hirugarren ariketa Escape Room digital bat burutzea da. Escape Room digital honetan, detektibea bihurtuko zara, izan ere, zuk jadanik ezagutzen duzun lagun batek mezu oso garrantzitsu bat dauka zuretzat. Baina lasai! Mezua lortzeko laguntza izango duzu eta!





Seguru nago Escape Room-ak zer diren badakizula, baina ba al dakizu zer diren Escape Room digitalak?





Escape Room digitalak online egiten diren jokuak dira, hau da, Interneten bidez. Hauetan, jokalariak asmatu edo aurkitu behar duen misterio bat dago eta horretarako, proba eta joku desberdinak aurrera eramaten dira. Escape Room digital bakoitza, tradizionaletan gertatzen den bezala, gai bat, pertsonaia batzuk eta istorio bat dauka.

Escape Room-aren gaia zein den jakin nahi duzu?

Hona hemen pistatxo batzuk:









Gida honetan, Escape Room digitala egiteko oso lagungarriak izango diren aholkuak eta materialak aurkituko dituzu.

**ESCAPE ROOM DIGITALAREN LINK-A:**

https://view.genial.ly/607bf92a3e36040d6b77555d

## 2. Escape Room digitalaren misterioa

Escape Room digital honen misterioa, lagun misteriotsu batek zuretzat prestatu duen mezua aurkitu behar duzula da. Baina, nora joango zara mezu hori bilatzera?



Horretarako, loro honen laguntza izango duzu! Berak azalduko dizu egin behar duzun guztia!



Loroak irla batera eramango zaitu eta bertan, hizki batzuk aurkitu beharko dituzu. Hizki horiek aurkitu eta hauekin hitz magiko bat sortzea lortzen ez baduzu, ezin izango duzu lagun ezkutuaren mezua irakurri. Baina lasai, hizkiak aurkitzeko pista batzuk jasoko dituzu. Pista hauek pergamino batzuetan agertuko dira edota loroak emango dizkizu.





## 3. Tresnak

1) 

**Botoia:** tresna hau hurrengo diapositibara pasatzeko balio du.

2) 

**Teleportagailua:** tresna hau irlara joateko eta irlatik bueltatzeko balio du.

3) 

**Pergaminoa:** hizkiak aurkitzeko pista gehienak tresna honetan egongo dira.

4) 

**Maleta:** tresna hau aurkitu dituzun hizkiak gordetzeko balio du.

5) 

**Paperezko bolatxoa**: tresna honetan hizkiak aurkitzeko beste proba batzuk egongo dira.

6) 

**Kortxoa:** tresna hau hizki guztiak ordenatzeko eta bilatzen ari garen hitza zein den ikusteko balio du.

## 4. Animazioak



Escape Room-ean aurreko tresnaren bat edota pertsonaiaren bat mugitzen badira, tresna edota pertsonaia horrek zuretzat ze o zer duela esan nahi du. Hortaz, horren gainean klikatu edota kurtsorea horren gainetik pasatu. Modu honetan, mezua jasoko duzu.

## 5. Mezua

Hizki guztiak lortu eta ordenatu ondoren, hitz magikoa lortuko duzu. Hitz magikoa lortu eta gero, lagun misteriotsuak hain garrantzitsua den mezua emango dizu.  

**MEZUA OSO GARRANTZITSUA DA! OSO ONDO GORDE, ZURE ALTXORRA IZANGO DA ETA!**

 

**ORAIN BAI ESCAPE ROOM DITALAREKIN HASTEKO PREST ZAUDE! EKIN LANARI!**